

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Okendo kalea, 9

2025
irailetik
abendura

PRO GRA MA



DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA



Okendo kalea 9, 20004 Donostia



943 48 34 70



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00



info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus



www.donostiakoemakumeenetxea.com

AURKEZPENA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoe-ta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko, eta berdintasunean eta feminismoan oinarritutako gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Lantalde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek lantalde guztietan har dezakete parte.

KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK:

- Ikastaroetan **izen ematea irailaren 8tik 21era arte** izango da. Gutxieneko inskripziora iristen ez diren ikastaroetan izena emateko epea luzatu egingo da, ikastaroa hasten den egunera arte.
- Izen-ematea internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Anima zaitetz eta hurbil zaitetz Etxera, ez geratu izena eman gabe.
- Ikastaro, zerbitzu eta ekimen guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Aurrez abisatu ezean, zerbitzuetako hitzorduetara ez datozenek ezin izango dute zita berririk eskatu urte beteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.

EZAGUTZEN AL DITUZU ETXEKO GUNE PARTE-HARTZAILEAK? BADA KIZU NOLA PARTE HARTU?

- Elkarteko bazkide egiten (e-mail bidez Etxeko informazio guztia jasoko duzu).
- Elkarteko lan-talde batekin bat eginez. Idatzi info@donostiakoemakumeenetxea.com helbidera.
- Etxeko ikastaro edota tailerretan izena emanaz.
- Batzarrean parte hartuz.

ANIMATU ETA EGIZU BAT ERALDAKETA FEMINISTAREKIN!!!

ZER AURKITUKO DUZU PROGRAMA HONETAN?

→ **ESKOLA FEMINISTA**

- **PRESTAKUNTZA FEMINISTARAKO TAILERRAK**

Iraupen laburreko tailerrak, gai espezifikoak lantzeko.

- **MATRAKA GUNEAK**

Irailetik udara arteko luzapena duten ikastaroak.

Izen-ematea irailean egiten da.

→ **ELKARGUNEAK**

Ikasturte osoan zehar biltzen diren taldeak.

Urte osoan irekiak. Bat egiteko, jarri harremanetan Emakumeen Etxearekin.

→ **AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK**

Aldez aurretik hitzordua eskatuta. Hitzordu bat eskatzeko, jarri harremanetan Emakumeen Etxearekin.



FORMAKUNTZA- RAKO BLOKEAK

Gai zehatzak lantzeko gune trinkoak,
diskurtsoak sortzeko eta elkar hartzeko,
formakuntzen bitartez elkar ahalduentzeko
asmoz.



(POST)PORNOAREN ESPLORATZAILEAK

6 saio

Formatzailea: Itziar Ziga
Eguna: asteartea
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 7
Amaiera: abenduak 16
Hizkuntza: gaztelania

Ba al zenekien 80ko hamarkadan, feminismoaren korrante bat pornoaren aurka tematzen zen bitartean, bazirela bost emakume erotikoak baino gehiago ziren filmak sortzen? Gaur egun online pornoaren alarmak jo du berriro. Belaunaldi berri bat sexualki zapuzten ari ote gara? Gaur egungo pornoa dioten bezain txarra al da? Zinema edo ikus entzunezko genero madarikatu honetan, adinak eta motak ikertzea proposatzen dugu. Gure kritika aztertzea, ez kritika politikoa bakarrik. Eta ikusi nahiko genukeen pornoaren gidolaria izatera jolastu.

FLAMENKO FEMINISTA

5 saio

Formatzailea: Askoa Etxebarrieta (La Pulga)
Eguna: osteguna
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 16
Amaiera: abenduak 4
Hizkuntza: elebiduna

Dantzatzea gustuko duzu? Hala bada, honako hau da zure ikastaroa. Oholtza oinekin astindu, gorputza askatu eta elkarrekin flamenkoa dantzatzeko aukera izango duzu. Aitzakia ezin hobea da gogo gorputzak libre sentitu eta patriarkatuari flamenko doinuez aurre egiteko. Ikastaro honetan talde giroan eta erritmo biziz, dantza ez ezik, beste hainbat balio ere landuko ditugu.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

EUROZENTRISMOA HAUTSI! FEMINISMO DEKOLONIAL ETA ANTIARRAZISTA BATEN ALDE

5 saio

Formatzailea: Emilia Larrondo
Eguna: astelehena
Ordua: 18:00 - 20:00
Hasiera: urriak 13
Amaiera: azaroak 10
Hizkuntza: gaztelania



Ikastaro dinamiko bat proposatzen da, non gure historia, geografia eta musikaren bitartez hausnarketa egingo dugun, emakume GUZTIENTZAKO feminismoa eraikitzeko sentimendu eta pentsamenduak sortuz. Hegoalde Globaletik begirada hegemoniko, eurozentriko, arrazista eta burgesarekiko haustura proposatzen da. Espazio honek gure feminismoa berrikustea du helburu, baina batez ere ahizpatasuna oinarri duten loturak sortzea konplizitateak sortzeko eta feminismoa gorputzera eta ekintzara eramateko.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

IKERKUNTZA BORROKA FEMINISTA DENEAN

7 saio

Formatzailea: Euskal Herriko Antropologia Feminista Ikerketa Taldea

Eguna: asteazkena

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: urriak 8

Amaiera: azaroak 19

Hizkuntza: euskara



1985. urtean argitaratu zen Euskal Herriko lehen ikerketa feministatzat har dezakegun lana, *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Teresa del Vallek zuzendu zuen lan-talde zabal baten eskutik. Ordutik hona, kontaezinak dira feministok aztertu ditugun gaiak eta garatu ditugun ikerlanak, bakarka edo taldeka, unibertsitatean zein unibertsitatetik kanpo. Ikastaro honetan, azken hamarkadan EHUKo AFIT-Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko kide batzuek buruturiko ikerlanak aurkeztuko dira, euskal ikerkuntza feministaren lagin txiki bat besterik ez dena. Ikerketa horietatik abiatuta askotariko gaiak jorratuko dira espazio honetan; plazera, hilerokoaren kultura, euskal gatazka eta generoa, krisia eta adiskidetasuna besteak beste.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

AUTODEFENTSA FEMINISTA:

bizi-sustraitzearen eta ahots propioaren bila. Barneko iparrorratza berreskuratzea beldurra botere bihurtzeko.



Autodefentsa feminista ez da indar fisikorekin hasten, gorputzarekiko, ahotsarekiko eta jarrerarekiko loturarekin baizik, seinaleak ezagutzeko, mugak ezartzeko eta segurtasuna bizitzeko. Erreakzionatu baino lehen, funtsezkoa da beldurra erregulatzea eta barneko iparrorratza berreskuratzea, izutik jardun gabe. Presentzia eta konfiantza lantzeak ikasitako defentsa-eza haus-ten du eta autonomia indartzen du.

Euskaraz (8 ordu)

Formatzailea: Ageda Blasco

Eguna: azaroak 11 eta 12

Ordua: 10:00 - 14:00

Gazteleraz (8 ordu)

Formatzailea: Ageda Blasco

Eguna: azaroak 18 eta 19

Ordua: 10:00 - 14:00

Antolatzailea: Berdintasun Saila

MATRAKA GUNEAK

Gune hauek irailean irekitzen ditugu eta batzuetan, toki libreak geldituz gero, urtarrilean ere bai. Bertan ikasturte osoko lanketa feminista bat egiten da eta Etxetik kanpoko proiektzioa duen talde bat sortzen da.



ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza
Eguna: asteazkena
Ordua: 18:30 - 20:00
Hasiera: urriak 8
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna

Ikastaro hau antzerki teknika anitzen bitartez ahalduzte individuala zein kolektiboa lantzeko gunea izango da. Gorputzak erdi-gunean jarritz zentzumenak landu eta horiek adierazteko aukera eskainiko dio nork bere buruari eta jaketuntza feministarako bidean sakonduko da antzerkia bera horretarako tresna dela ulertuz.

BATUKADA FEMINISTA

Plaza mugatuak

Formatzaileak: Ainara Sarasketa
Arantxa Albizu
Eguna: asteazkena
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 22
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna

Espazio honetan perkusioa eta erritmoak baino askoz gehiago aurkituko duzu. Talde-lanak, musika-sorkuntzak eta aldarrikapen politiko feministek bat egiten dute hemen. Batukadako instrumentu bat jotzen ikasi eta sarea sortu nahi baduzu, eman izena!


Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

KLOWN

Formatzailea: Itziar Saenz de Ojer
Eguna: astelehena
Ordua: 18:30 - 20:00
Hasiera: irailak 29
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna

Gozamenez, barre algarez, adierazpen artistiko zein politikoz eta jolas eta inprobisazioz beteriko elkartasunerako eta gogoeta feminista kolektiborako gunea.

Anima zaitez, Clown teknika erabiliz, arauak eta estereotipoak zalantzan jartzen, eta aurre egin patriarkatuari barrearen bidez!



Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

XAKE

Formatzaileak:	Elisabeth Agirre Leire Cruz
Eguna:	asteartea (Xake1) ostirala (Xake2)
Ordua:	19:30 - 20:30 (Xake1) 18:00 - 19:00 (Xake2)
Hasiera:	urriak 7 (Xake1) urriak 17 (Xake2)
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	elebiduna

Xakea gustuko baduzu eta beste emakume batzuekin batera espazio feminista batean praktikatzeko gogo baduzu, eman izena! Ikasi zerotik, berrikusi oinarritzko kontzeptuak edo hobetu zure xake-trebetasunak. Anima zaitez, eta, guztion artean, kirol honetan emakumeen parte-hartzea ikusaraziko dugu!

KOROA

Formatzailea:	Bettina Aragón
Eguna:	ostirala
Ordua:	19:30 - 21:00
Hasiera:	urriak 10
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Elkarrekin abestuz mundua eraldatzeko prest al zaude? Hala bada, Ederlezi abesbatzak besoak zabalik hartuko zaitu. Abesbatza honetan emakumeek idatzitako eta moldatutako letrak kantatzeaz gain, feminismoa oinarri duen giroa ziurtatua dago.

Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

XILOGRAFIA FEMINISTA

Formatzailea:	Oihana Ugarte
Eguna:	astelehena
Ordua:	18:00 - 20:00
Hasiera:	urriak 6
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	euskara

Ikastaro honetan xilografia teknikaren has-tapenak ikasiko ditugu; lanabesen erabilera, gubiak, xaflaren lanketa, estanpazioa eta xilografiaren oinarriak ezagutzeko ariketak egingo dira; positiboa eta negatiboa tramak, testurak. Teknika baliatuz gure sortzaile sena landuko dugu indibidualki zein kolektiboki.



Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

IRAKURLE TALDEAK



ISIL-GORDEAK EUSKAL LITERATURAN

Azken aldian askotariko isiltasunak ardatz dituzten literatur lan ugari argitaratu dira (isilarazitako subjektuen ahotsak, isil-gordean bizi behar izandako esperientzien lekukotzak, gizarte-tabuak bihurturikoak...). Irakurle-talde honetan isiltasun-motaren bat ardatz dituzten literatur lanak izango ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak isiltasun horiek nola zeharkatzen dituzten aztertzeko asmoz. Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: zein isiltasun-motari buruz hitz egin da euskal literatura garaikidean? Isiltasun-mota horietaz eta isil-gordean biziako horietaz, nolako proposamen feministak egin dira? Irakurleok nola eraikitzen ditugu geure isiltasunen eta pertsonaien isiltasunen arteko harremanak?

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Eguna: osteguna,
hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 21:00


Hasiera: urriak 16

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: euskara

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza
Eguna: osteguna, hilabetean behin
Ordua: 19:00 - 21:00
Hasiera: urriak 9
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: euskara



Artikulu, liburu eta hainbat idatzietatik abiatuta ikastaro honek feminismoa izango du ardatz. Irakurzaletasuna baliatuz kolektiboki pentsatu zein hausnartzeko tarte eskainiko da pentsamendu feministaren oinarrian dauden gogoeta, galdera zein eztabaidagaiak ulertzeko. Jakintzak norbanakotik haratago eraiki daitezkeela aintzat hartuta eta besteen lanak irakurritz euskal kultura genero perspektiba batetik aztertzeke gunea ere izango.

Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

CUENTISTAS

Formatzailea: Mertxe Tranche
Eguna: osteguna, hilabetean behin
Ordua: 19:00 - 21:00
Hasiera: urriak 23
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Idaztea beti izan da emakumeentzako ofizio zaila, eta, horregatik, horretan saiatu direnak ipuingintza izan dute aterpe. Idazle izateko ahalegin horretan, ordura arteko kontakizunen egiturak modernizatzen hasi ziren. Ikastaro honetan, aitzindarietatik abiatuko gara; E. Pardo Bazánen idazkietatik hasi, idazle anglosaxoi ezagunekin jarraitu, Estatu Batuetako hegoaldeko egileak ezagutu eta gaur egungo idazle garaikideen obretara iritsi arte. Egile bakoitzaren kontakizun esanguratsuenak ezagutu ahal izateko aurrez euren inguruan idatzitako antologiez baliatuko gara.



Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

BESTE AHOTS BATZUK

Formatzailea: Mertxe Tranche
Eguna: asteartea,
hilabetean behin
Ordua: 19:00 - 21:00
Hasiera: urriak 21
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania



Gutako bakoitza errealitateari buruzko begirada bat gara. Begiratzeko modu asko daude, ikusten dena kontatzeko modu desberdinak dauden bezala. Batzuk gugandik hain urrun daudenez, badirudi beste mundu bat dela begiratzen dutena, eta, hala izango da, seguruenik. Ikastaro honetan, beste kontinente batzuetako emakumeak ezagutuko ditugu, beste kolore batzuetakoak, beste kezka batzuk dituztenak, beste begirada eta ahots batzuk dituztenak, ikusten duguna berriro argitzeko gai direnak.

Antolatzailea : Berdintasun Saila

MINBIZIA LITERATURAN

Formatzaileak: Lurdes Arostegi
eta Lorea Arrieta
Eguna: osteguna,
hilabetean behin
Ordua: 18:30 - 20:00
Hasiera: urriak 16
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: euskara

Minbizia geroz eta presenteko dago gure artean, eta gero eta emakume idazle gehiago ari da gaixotasunaren inguruko beren bizi-esperientziei buruz hausnartzen, fikziotik zein entsegutik.

Irakurle talde honetan, gu zeharkatzen gaituzten bizi-esperientziez hitz egingo dugu, eta sortzen zaizkigun ideia, kezka, zalantza eta galderei buruz eztabaidatuko dugu, minbiziaren esperientziaz hausnartzen duten zenbait testu abiapuntu hartuta.



Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkarte

ELKARGUNEAK

Talde hauek ikasturte osoan zehar elkartzen dira eta gehienak irekiak mantentzen dira parte hartzaile berrientzat. Parte hartu nahi baduzu, deitu edo gerturatu Emakumeen Etxera.



NESKA GAZTEENTZAKO JABEKUNTZA GUNEA

Dinamizatzaileria: Lahia 3.0

Eguna: asteartea
hamabostero

Ordua: 17:30 - 19:30

Hasiera: irailak 16

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

Donostiako Emakumeen Etxean neska eta genero anitzeko gazteei zuzendutakoa da. Gune honetan feminismoarekin, jabekuntzarekin, harreman parekideekin... lotutako gaiak lantzen dira eta jabekuntza prozesu bat bezala planteatzen da.

Zeini zuzendua?

15 - 20 adin tarteko neska eta genero anitzeko orori.

Nola eman izena?

Astelehenetako Biluzik Zerbitzura hurbilduz, biluzikzerbitzua@hotmail.com helbidera edo [lahia3.0](https://www.instagram.com/lahia3.0) instagrameko kontura idatzi daiteke ere. Donostiako Emakumeen Etxearekin harremanetan ere jarri zaitezke eta zita bat jarriko dugu, zure beharrak eta nahiak ezagutzeko.



ETXEKO LANGILEEN TALDEA

Dinamizatzailea: SOS Arrazakeria

Eguna: asteartea
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: irailak 9
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania



Atzeritar jatorriko etxeko langileentzako asteroko topagunea. Helburua isolamendu soziala haustea eta elkarri laguntzeko eta entzuteko sareak sortzea da.

AUTOEZAGUTZA ETA ZAINNTZA INTEGRALA

Dinamizatzailea: Kontxi Lopez

Eguna: ostirala,
 hamabostero
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: urriak 3
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Emakumeen arteko topaketa eta hausnarketa talde bat abian jartzeko gunea.

Gure bizi-kalitatea hobetzeko autoezagutza lan bat, zoriontsuagoak izateko, zoriontasuna ere politikoa baita, kolektiboa. Tratuon-gune bat eraikiko dugu, nork bere burua ezagutzeko, geure burua maitatzeko, onartzeko, entzuteko, gure gorputzaren prozesuak ulertzeko (sentsazioak, emozioak, pentsamenduak, jokaerak...), ulertzeko zergatik funtzionatzen dugun nola funtzionatzen dugun, zer den sentitzen duguna eta nondik datorren hori guztia. Ez ditugu gure beharrak ahaztu behar.

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Dinamizatzailea: Katherine Astudillo

Eguna: asteartea
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: irailak 9
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania



Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatze-ko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirarekin duten harremana ezagutu eta taldearen laguntza jaso.

Antolatzailea : Berdintasun Saila

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Dinamizatzailea: Aitziber Eguzkiza

Eguna: osteguna
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: irailak 11
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoen eta taldearen lorpenak. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.



Antolatzailea: Kultur Aniztasuneko Saila

TALDEKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Dinamizatzailea: Maider Andonegui

Eguna: asteartea,
hamabostero

Ordua: 14:30 - 16:00

Hasiera: irailak 16

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania



Talde gune bat, bakarka nahiz gizarte aldetik egoera bereziki zaugarrian dauden emakumeentzat. Gogoeta egiteko gonbita egiten digun gunea, gure ustez zapaldu egiten gaituen hori komunean jarrita. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jaso ditugun kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena, jaso ditugun nortasun eta sinesmen horiek ez baitigute uzten gure erabakien jabe izan eta bizitza autonomo eta indarkeriarik gabeari aurre egiten.

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Dinamiza: Elkartu

Eguna: ostirala

Ordua: 11:30 - 13:30

Hasiera: irailak 12

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

Desgaitasuna duten emakumeak elkar-tzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.



Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00
Hitzordurik gabe

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Realiza:
SOS Arrazakeria

Asteartea
16:30 – 18:45
Hitzordurekin

Lege Aholkularitza

Familia zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerriartasuna, genero indarkeria.

Realiza:
Emakumeen Bananduen Elkarte

Asteazkena
17:00 - 21:00
Hitzordurekin

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

     **943 48 34 70**

** Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu urtebeteko epean.*

Laguntza Psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahal-duntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Amanda Jiménez

Asteazkena
10:00 - 14:00
Hitzorduekin

Parekatu

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.

Egilea:
Bidez Bide

Osteguna
10:00 - 13:30
Hitzorduekin

Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
LAHIA 3.0

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduekin

Sare sozialetan:



@lahia3.0

Email:
biluzikzerbitzua@hotmail.com

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Asteazkenetik ostegunera.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Okendo kalea 9



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

